# HAMABIGARREN ERAKASPENA



## (I) ELHEKETA: ASTE HUNTAKO SOLAS. GAIA

1 - Zertako Espainian jendek odola maite dute?
2 - Estakuru haundi bat behar dutea norbeiten hiltzeko?
3 - Zer zaiote Españolei odolaren ixurtzen ikhustea?

## (II) ZERK EGIN DU ESPAINIA? 4

Ororen buruan, bat ala bertzea hil dadin, odol zorta[38] bat ixurtzen ikhusi dutela badakite. Ai gizona, odol gorri hura zezenaren lephotik edo gizonaren ixterretik burrustan[39] jauzten ikhustea, zer ikhusgarri gozoa begientzat!

Nondik nahi duzue odolaren ikhusteak izi ditzan españolak? Ez dute nahi bezen luzaz eta ardura zorion hori!… Zer diot? —Norbeiten *sangratzeko* gutizia heldu zaiotenean, aski dute *kutchillo*[40] hura eskuan harturik idekitzea. Etsai edo adixkide, hitz bat goregi derasanari saka[41] tripatik edo bizkarretik… saka gidderreraino[42].

Odol bero hartan eskuaren bustitzea gozo da, ez dea[43] hala, Manuel?

Iragan negua zen. Baziren hor, Espainia hegal hortan (ahantzia dut herriaren izena) bi gizon langile; biak elgarren adixkide minak. Bat urde hiltzalea zen, bertzea haren lagun zabilan, etxez etxe, hiltzalearen lagun. Batek atxik, bertzeak hil. Elgarrekin lana egin; gero jan eta edan eta lo; hots ezin bereziak ziren elgarretarik.

Horra non egun batez, zerri baten buztana baino gutiagoko erbeitetarik makhurtzen diren. Ez eta bai erraiteko arterik gabe, sartzen dio batek bertzeari urde hiltzeko kanibet handi hura. Paria nezakezu[44]… biharamunean ez zakikela zertako hil zuen gizon adixkide hura. Lo on batek ahantz-arazten ditu holako gerthakari ttipi hoik… Espainian.

Hemen Frantzian haro[45] aphur bat eginen zuen halako batek. Espainian ez. Josteta bat zaiote eta españolei odolaren ixurtzen ikhustea. Orotarat egiten da gizona… ikhusiz eta ikhasiz.

Ba *Bettiri*, egia diozu. Espainia, den bezala, zezenkariek eta zezenek egina da. Hori baino egia handiagorik ez duzu erranen, biziak dirauzuno. Zaude hortan!

Españolei = Españolere.
Dirauko = Cela lui dure
Dirauzu = Cela vous dure
Diraukote = Cela leur dure
Dirauzute = Cela vous dure (pluriel)

## (III) ADITZ IKASKUNTZA.

31 - Izi ditzan   32 - Derasanari
33 - Nezakezu   34 - Zabilan.

31. UKAN. Subjonctif Présent.

| O. S. | O. P. |
|---|---|
| Nik ukan dezatan (que je l'aie) | Ukan ditzatan = (que je les aie) |
| Hik " dezakan(nan) = | " ditzakan(nan) = Que tu … |
| Zuk " dezazun = | " ditzazun = Que vous les ayez |
| Harek " dezan = | " ditzan = |
| Guk " dezagun = | " ditzagun = |
| Zuek " dezazuen = | " ditzazuen = |
| Heiek " dezaten = etc | " ditzaten = etc |

32. ERASI = Jaser, murmurer. Indicatif Présent.

Nik derasat = je jase
Zuk derasazu = vous jasez
Harek derasa = il jase
Guk derasagu = nous jasons
Zuek derasazue = vous jasez
Heiek derasate = ils jasent
Imparfait: Nik nerasan, Z. zinerasan, H. zerasan, G. ginerasan, Zuek zinerasaten, Heiek zerasaten.

33. UKAN. Conjugaison transitive à cplt direct: pronom personnel. Potentiel Présent.

Ni = me, moi.

Zuk ukan nezakezu = vous pouvez m'avoir.
Harek -"- nezake = il peut m'avoir.
Zuek -"- nezakezue = vous pouvez m'avoir.
Heiek -"- nezakete = ils peuvent m'avoir.
Ikus nezakezu = vous pouvez me voir